



POESIA

Ene amoranteak bertan behera
utzi ninduenan hilko nintzela
uste izan nuen, negarretan itoko,
pattarraren itsaso hondargabea...
Orduan zu agertu zinen,
zu izan zinen orduan ele lagun bakarra
logabeko gau luze etsigarrian.
Zure aurrean buru-hiltze asmo guztiak,
azukre koxkorak balira legez,
urtuz zihoazen ene golkoan,
ene bekokian...

Bizi izandako dena berpiztu
egiten zen, heriotzatik itzuli
amets gaizto batetik bezala;
eta balizko errotan
eho irin gainean
berbek laga zituzten
euren oinatz beltzak...

Hortan nengoela zabaldu zen eguna;
zakurren zaunka urrunek eta oilariteak
lehioko bele beltza uxatu egin zuten...
Ez nintzen hil... Zuk salbatu ninduzun...
Baina beste amorante,
hezur-haragizko beste amorante berri
bat azaldu zen eta
-oi, gizasemeon eskertxarra!-
behingo honetan nik neuk utzi zintudan
bertan behera.

Luigi Anselmi

POESIA

Quando mi amante me dejó por otro / creí morir, ahogarme / en torrentes de llanto, / en el mar insondable / del alcohol... / Entonces apareciste tú... / Tú fuiste entonces mi única amiga / en aquella larga noche de insomnio / y desesperación. / Ante tí los deseos de suicidio / se fueron disolviendo como un terrón de azúcar / en mi pecho y mi frente. / Todo lo ya vivido resucitó de nuevo, / regresó de la muerte / igual que de un mal sueño. / Entonces las palabras / imprimieron sus huellas diminutas / sobre la blanda arena / de los castillos derruidos... / Y mientras escribía / me sorprendió la luz de la mañana / el ladrido lejano de los perros / y el canto de los gallos / ahuyentaron al cuervo negro de mi ventana... / Aun estaba vivo... Tú me habías salvado... / Pero una nueva amante / de carne y hueso apareció de pronto / y esta vez / -Ay, esa proverbial ingratitud del hombre- / yo fui quien te dejó.